

HIRU TXERRI KUMEAK 2

© David Ondars

Dédé artzaina

Txerriak

Lili

Fifi

Mimi

Joane

Manex

Kristina

Filipe

Loyatho

Oteiza

Ospital

Arnabar

Otsoa

Bostpasei urdiak metan dira, denek « ron ron ron » egiten. Laborari bat sartuko da makil batekin.

Dédé : Ixilik ! Urde zikinak ! (*Irriz*) Ahahah ! Bihar hiltegiara joanen zirezte, lukinka bezala finituko duzue eta eni sos guzia ! Xingar arte ! (*Beti irriz*) Ahahah

Artzaina joanen da. Xerri bat xutituko da.

Fifi : Entzun duzue hori ? Bihar hilko gaituzte !

Denak erotuko dira, « ron ron ron » oihukatzen.

Fifi : Kalma zirezte, kalma ! (*urdeak kalmatzen dira*) Eskapatu behar gira ! Nor heldu da nerekin ?

Xerri bat xutituko da.

Lili : Ni ! Ez dut pâté basqua bezala finitu nahi !

Fifi : Untsa ! Beste bat ?

Beste bat xutituko da bainan berak ez daki mintzatzen. Bakarrik « ron ron ron » badaki erraiten.

Mimi : Ron ron

Lili : Untsa ! Nola da zure izena ?

Mimi : Ron ron

Fifi : Ados, prest zira gurekin joateko ?

Mimi : ron ron

Lili : Bikain, goazen !

« Mission impossible »ko musika. Hiruak emeki emeki eskapatzen dira eta eszenatik kanpo joaiten dira. Artzaina gibeletik.

Artzaina : Geldi ! Ene xingarrek !!

Beste eskualdetik hiru txerri kumeak sartzen dira, hatsankatuak.

Fifi : Bon lehenik kukutu behar gira.

Lili : Bai, etxe bat eraiki dezagun, han egurra, lastoa eta brikak badira !

Fifi : Zozoa zira ! RT 2012 legearekin ez dugu dretxorik ukanen horrekin egitea. Ez, eskapatu behar gira leku galdu batetara ! Goazen !

Hiru txerriak eszenatik ateratzen dira. Joane eta Manex sartzen dira, pankarta batekin « Maule » idatzia da. Hiru txerriak beste eskualdetik sartuko dira.

Joane : Egun on Jaun Andereak, zerbait xerkatzen duzue ?

Lili : Hiru txerri kume migranteak gira eta lo egiteko leku bat xerkatzen dugu.

Manex : Txerri kumeak ? Interesgarria (*Manex eta Joane elgar so egiten dira, eskuak ferekatuz*).

Joane : Plazerrekin ongi etorriak zirezte !

Fifi : Zer proposatzen daukuzue ?

Manex : Baditugu ganbarak, aski ilunak, ez zirezte bakarrik izanen bainan bakotxak ukanen du bere hiltzeko lekua...euh lo egiteko lekua.

Joane : Gainera segurtatzen dautzegu ez duzuela problemarik ukanen, gure hotelan kamerak baditugu denetan.

Manex : Bai, trankilki hilko zaituztegu... euh zainduko zaituztegu.

Lili : Ados, ez badugu beste hauturik, hiru ganbarak hartuko ditugu.

Joane : A la jinkoa, biziki untsa !

Manex : Lehenik paper hau bete beharko duzue.

Joane : Pizua, adina, alimentazioa, AOC, AOP edo IGP.

Oihu bat entzunen da barnetik, urde bat orroaz ari.

Beste bi txerriak itzultzen dira hirugarren txerriaren ganat.

Lili eta fifi : Zer erran du ?

Mimi : ebe.. hui hui hui (*ber oihua eginez*)

Lili : Hiltegi bat !

Fifi : Eskapa gaiten !

Hiru txerriak eskapatzen dira eskuinetik.

Manex : (*aspertua*) L214 ?

Joane : Prefosta !

Manex eta Joane ateratzen dira eta bikote bat sartzen da, pankarta batekin, « irisarri » idatzirik.

Lili : Oh Begira zer idatzia den etxe hunen murruan !

Fifi : AR..TZAIN ! Artzain !

Lili : Artzain bat ! Salbatuak gira !

Mimi : Ronron (*Irabazteko jestua eginez*)

Lili : Egun on jaun andereak ! Aterpe bat xerkatzen dugu gau huntako

Kristina : Bainan zer zirezte ?

Fifi : Hiru txerri kume migranteak gira

Filipe : Humm interesgarria da...

Kristina : Oh bai Ma-ni-faik ! Zer ikusten duzu txef ? (*Christina Cordula bezala mintzo da*)

Filipe : Berekin : Kromeski de Serrano avec sa farandole de pois chiches

Kristina : Oh ma txerri ! Ma-ni-faik ! Ta berekin ?

Filipe : Paté en croute de Kintoa façon Monique Ranou

Kristina : Ma-ni-faik ! Ma txerri, berekin zer ?

Filipe : hummmm... berekin.... lunkika pure !

Fifi : Bainan ez zira artzain bat ?

Lili : Jan nahi gaitu !

Mimi : Ron ron ! *(partitzeko jestua eginez)*

Hiru txerriak eskapatzen dira berriz ere. Beste biek segituko dute.

Kristina : Ma txerri !

Filipe : Ene odolkiak !

Hiru txerriak berriz sartzen dira, desesperatuak dira.

Lili : Foutü gira, ez dugu sekulan gure bizia salbatuko

Fifi : Bai hilko gira... zer pentsatzen duzu Mimi ?

Mimi : ron ron *(desesperatua)*

Lili : Lagunak, lo egin dezagun

Hiru txerriek lo egiten dute, metatzen dira, eta hasten dira « ron ron » egiten.

Bat batean 4 ohoinak agertzen dira.

Ohoinak : Ahahah !

Txerriak : Ahhhh !! *(oihukatuz) (hiruak elgartzen dira)*

Lili : Nor zirezte ?

Fifi : Zer nahi duzue ?

Loyatho : Harrapatuko zaituztegu !

Oteiza : Eta zuekin...

Ospital : Animaleko sosa...

Arnabar : eginen dugu !!

Ohoinak : *(Irriz)* Ahahahah

Lau ohoinak beren atorra idekitzen dute eta haien logoa ikusten dugu

Loyatho : Ni naiz... Loyatho !

Oteiza : Ni naiz... Oteiza !

Ospital : Ni naiz... Ospital !

Arnabar : Ni naiz.. Arnabar !

Beste hiru ohoinak : Zer ???

Arnabar : Grippe aviairarekin ahaterik ez dut gehiago, zerbaitekin sosa egin behar dut nik !

Lili : Amets gaixtoak segitzen du

Fifi : Lukinkatuko gaituzte !

Mimi : Ron ron (*hiltzeko jestua eginez, ganita lepoan*)

Otso baten oihu bat entzuten da. Denek nun nahi so egiten dute. Otso bat sartzen da

Lili : Otso bat ! Hori ginuen falta !

Otsoa : Ohoinak ! Uzkizue hiru txerri horiek trankil edo masakratuko zaituztet !

Ohoinak : (*irriz*) ahahah

Loyatho : Otso batek txerriak defendatzen ?

Oteiza : Borroka gaitezen beraz !

Ospital : Ohoinak !!

Arnabar : Ganitak !!

Lauek ganita bat ateratzen dute.

Otsoa : (*Publikoari*) Publiko maitea, hiru txerriak salbatzeko, ufatu beharko duzue ! (*Txerrieri*) Txerriak lotu ! Eta zuek ufatu, Hiru, bi, bat : ufaaa !!

Publikoak ufatzen du

Ohoinak : ahahhaa (*Lurrerat eroriko dira*)

Hiru txerriak : Aupa !!

Fifi : Milesker otsoa ! Bainan zendako salbatu gaituzu ?

Lili : Usaian, ostoe txerriak jaten dituzte

Mimi : Ron ron (*otsoa zozoa dela jestua eginez, « toc toc » bezala*)

Otsoa : Ez dut haragirik jaten, barazkiak bakarrik jaten ditut. Armendaritzeko baratzezainekin woofing egiten dut.

Fifi : Milesker otsoa, zerbait egiten ahal dugu zuri eskertzeko ?

Otsoa : Bai, elgarrekin kanta dezagun !

« Libéré, délivré » kantua entzuten da, denak lerroan ezartzen dira. Pertsonai guziak agertzen dira, lerroan ezartzen dira ta publikoa agurtzen dute.

(OIHALA)


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ilido beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.